| MENDEURREN BATZORDEA | LEGAZPIKO UDALA | BILERAREN AKTA<br><br>2008/03/17 |
|---|---|---|

**Organoa edo Batzordea:** Mendeurren Batzordea.
**Eguna:** 2008/03/17
**Ordua:** Hasiera 18:30 eta bukaera 20:00ak.
**Tokia:** Kultur Etxea

**Bertaratuak:**
Sotero Plazaola, Alkatea
Mikel Alzelai Zulaika, Kultura Zinegotzia
Juankar Agirre, Domingo Agirreko Guraso Elkartea
Asun Alkorta, Iratzarri
Mª Carmen Alaminos, La Bellota Centro Extremeñoa
Juantxo Aztiria, Olazabal Institutua
Asier Iriondo, Bertso-Olariak elkartea
Amaia Aizpurua, Korosti Dantza Taldea
Jose Luis Ugarte, Burdinola
Mª Paz Aranguren
Bittor Larraza
Xabier Lopez de Munain, Udal Artxibaria
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-teknikaria.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

1. **Orain artekoaren balorazioa.**

<u>Hitzaldia</u>: erantzun oso ona izan zuela azpimarratzen da, eta hitzaldia bera oso ona izan zela. Bideoa lehen bait lehen web orrian zintzilikatzea komeni dela aipatzen da.

2. **Ekintzen antolaketa.**

<u>Hitzaldiak</u>: Gogora ekarri da hurrengoa martxoaren 27an izango dela, "Kortak Legazpin: antzinako lurralde antolamendua" izenburu duena, Luis Mari Zalduaren eskutik. Hitzaldiaren laburpen bat bidali duela aipatu da eta erabili genezakeela hitzaldia iragartzeko garaian. Kartelei dagokienez Kutxaren logoa sartu beharko dugula aipatu da dirulaguntza eman baitute, 5.000 €, IV. Mendeurren honetako ekitaldietarako. Kartelei dagokienean bestalde, oraingoan paper birziklatuan egingo direla aipatu da, eta bihar

**Organo o Comisión:** Comisión del Centenario.
**Día:** 17/03/2008
**Hora:** Comienzo, 18:00 y final, 20:00.
**Lugar:** Kultur Etxea

**Asistentes:**
Sotero Plazaola, Alkatea
Mikel Alzelai Zulaika, Kultura zinegotzia.
Juankar Agirre, Domingo Agirreko Guraso Elkartea.
Asun Alkorta, Iratzarri.
Mª Carmen Alaminos, La Bellota Centro Extremeño.
Juantxo Aztiria, Olazabal Institutua.
Asier Iriondo, Bertso-Olariak elkartea.
Amaia Aizpurua, Korosti Dantza Taldea.
Jose Luis Ugarte, Burdinola.
Mª Paz Aranguren.
Bittor Larraza.
Xabier Lopez de Munain, Udal Artxibaria.
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-teknikaria.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

1. **Valoración de lo realizado.**

<u>Conferencia</u>: se comenta que ha tenido una buena respuesta y la conferencia estuvo muy bien. Conviene colgar el video cuanto antes en la Web.

2. **Organización de actos.**

<u>Conferencias</u>: Se recuerda que la próxima conferencia será el 27 de marzo con el tema "Los apriscos en Legazpi: antigüa organización territorial" a manos de Luis Mari Zaldua. Ha enviado un resumen de la conferencia que se puede aprovechar para anunciar el acto. En cuanto a los carteles habrá que meter el logo de Kutxa que ha dado 5.000 € para los actos del Centenario. También en cuanto a los carteles se comenta que esta vez se harán en papel reciclado y mañana mismo se le



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

bertan emango zaizikiola banatzaileari lehenbailehen jar ditzan.

Ibilaldia Legazpi-Segura: maiatzaren 18an izango dela adierazi da baina oraindik bidea garbitu gabe dagoela, eta bidea pasatzen den udalerriekin hitzegin beharko dela. Segurakoak prest omen daude harrera egiteko eta Izadirekin hitz egin eta ondoren Alkatetik alkatera harrerarena lotzea erabaki da.

Mirandaola eguna - Armen alardea -Artzai Eguna: Mirandaola egunean eguerdian egiten den antzerkitxoak aurtengoan askatzearen gaia hartuko du eta prestatutako bertsoz emango zaio hasiera eta amaiera. Bestalde, egun horretan Segurako Alkatea bazkaltzera gonbidatzea proposatu da. Horrez gain maiatzeko jaietan ospakizunak ere izango du presentzia Bertso-Olariak Elkarteak maiatzaren 4an egingo duen Bertso Musikatuak ikuskizunak gai hori jorratuko baitu. Armen Alarderako oraindik ez da ezer egin eta Artzai Egunari dagokionez Batzordea lehenago biltzen hastea proposatu da eta batzorde honetako bakarren bat bertan izatea. Bittor Larrazak aipatu du bera Artzai Eguneko batzordean ere badagoela, beraz lotuta geratzen da.

Erakusketa: Erakusketako argazkiak amaitzen ari dira, martxa politean doa dena.

Argitalpenak: Ikerlanaren laburpena jaso da eta itzultzera bidalia dago dagoeneko Aztiri Itzulpen Zerbitzura.

Urriaren 4ko jaialdia: Datorren apirilaren 2an, 19:30etan egingo dute hurrengo bilera eta ordurako gidoia finkatuta izango dute, nola jantzi eta talde bakoitzak egin beharrekoa finkatuta. Azpiegituren aurrekontuak ere eskatu dira, eta orain zalantzak argitzea falta da. Aipatu da jantziren batzuk egin beharko direla eta saiatuko direla tela erosi eta jostea ahal den bezala moldatzen.

Mendi Martxa: Triptikoa lotuta dago, ibilbideak ere bai. Propaganda kartelak eta egin beharko dira eta diaporama baten bidez aurkezpen ofiziala egingo da, jaien ondoren seguruenik. Bestalde komeni da jendea ahal den neurrian aldez aurretik apuntatzea eta

daran al repartidos para que empiece a ponerlos cuanto antes.

Recorrido Legazpi-Segura: se hará el 18 de mayo pero todavía esta el camino sin limpiar y habrá que hablar con los municipios por los que pasa el camino. Segura está dispuesto a hacer el recibimiento y después de hablar con Izadi Zaleak se decide que sean los alcaldes los que aten ese tema.

Día de Mirandaola - Alarde de Armas - Artzai Eguna: el teatro que se ofrece en Mirandaola al mediodía será sobre el tema de la desanexión y se prepararán versos para el principio y el final. Por otro lado, se propone invitar al alcalde de Segura a comer ese día. Además, el centenario tendrá presencia en otros actos de las fiestas; así, la asociación Bertso-Olariak en el espectáculo que ofrecerá el 4 de mayo tratará ese tema. Todavía no se ha hecho nada para el Alarde de Armas y en cuanto al Artzai Eguna se comenta que la comisión se reuna antes y que haya un miembro de esta comisión en aquella. Bittor Larraza comenta que él esta en la comisión del Artzai Eguna y por tanto queda atado el tema.

Exposición: Se están terminando las fotografías para el exposición, que va a buen ritmo.

Publicaciones: Se ha recibido el resumen de la investigación y se ha mandado a traducir a Aztiri Itzulpen Zerbitzua.

Acto del 4 de octubre: el próximo 2 de abril, a las 19:30 se hará la siguiente reunión y para entonces estará listo el guión, cómo vestirse y lo que debe hacer cada grupo. También se han pedido los presupuestos de la infraestructura y falta aclarar dudas. Habrá que hacer algunos trajes y se intentará comprar tela y coser.

Marcha montañera: El triptico está atado y los recorridos también. Habrá que hacer los carteles de progaganda y se hará la presentación oficial con un diaporama



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

horretarako Kiroldegia eta Izadi-Zaleak proposatu da. Beste toki batzuk ere proposatu dira baina ordaintzekoak direnez baztertu egin dira. Web orriaren bidez egitearena aztertzekotan geratu dira, diru-sarrera kontu batean eginez.

Web orria: martxan dago dagoeneko, orain eguneratzen joan beharra dagukagu.

Pankartak, kartelak, e.a.: Pankartei dagokienez udaletxekoak jarri direla eta Kultur Etxekoa bihar bertan jarriko dela jakinarazi da. Kartelei dagokienez berriz aurrerantzean paper birziklatua erabiltzea eta kutxaren logoa sartzea erabakiida. Honen inguruan aipatu da orain arte Bittorrek egin baditu ere Mendi Martxarenak, kontutan izanik Izadirekin ari direla lanean eta bertako juntakideetako bat Mattin dela, horrelako lanak ere egiten dituena, Mendi Martxari dagozkionak Mattinek egitea erabaki da.

Mendeurrena Gipuzkoako Aldundian: Alkateak jakinarazi du prest daudela ekitaldi protokolario bat egiteko, Donostian edo Legazpin, Irailaren 12an, eta Legazpin egitea erabaki da, egun horretan Seguraren mende egon ziren gainerako herrietako ordezkariak ere gonbidatuz, Segurakoak ere bai noski, eta ohiko harrera ofizialaren ondoren Erakusketaren irekiera ofiziala egiteko ere aprobetxatuko da. Mirandaola egunean egingo den Antzerkia ere egitea aipatu da, baina ikasleak eskolan hasi berriak izango direnez agian ez da posible izango. Azken puntu hau aztertzekotan geratu gara. Aipatu da gainera egun horietan Ilintikoek dendak eta girotuta izango dituztela, eta gainera Mendeurreneko logoa erabiltzeko akordioa hartu dutela.

Hitzaldia Koldo Mitxelenan: Ekitaldi ofiziala Legazpin izatekotan ez da garbi ikusten hitzaldia Koldo Mitxelenan egin edo ez, dena den hizlaria prest dagoenez, aurrerago ikusiko dugu komeni den ala ez.

**3. Bestelakoak.**

Oroigarriak: joan den bileran proposatu zen txanponaren inguruan Bittor Larrazak ekarri du proposamen bat legezko zilarrean

después de las fiestas. Conviene que la gente se apunte antes y se decide que eso se haga en el Polideportivo y en Izadi Zaleak. Se han mirado otras opciones pero son de pago. Se analizará el poder apuntarse en la Web, dando un número de cuenta para el ingreso.

Página Web: está en marcha y ahora solo falta tenerlo actualizado.

Pancartas, carteles,…etc: Ya se ha colocado la pancarta en el ayuntamiento y la de Kultur Etxea se pondrá mañana. Los carteles en adelante se harán en papel reciclado y se incluirá el logo de la Kutxa. En cuanto a este tema se comenta que aunqe hasta ahora los carteles ha hecho Bittor, los de la marcha montañera los hará Mattin que está en la junta de Izadi y también hace trabajos de este tipo.

El centenario en la Diputación de Gipuzkoa: el alcalde comenta que la Diputación está dispuesta para el acto protocolario del 12 de septiembre, lo mismo en en Legazpi que en Donostia y se decide hacer en Legazpi. Ese día se invitará a representantes de todos los pueblos que estuvieron sometidos a Segura y también a Segura. Después del acto de recepción se inaugurará la exposición. Se comenta que puede ofrecerse la obra de teatro de Mirandaola pero los alumnos están recien empezados en la escuela y no se sabe si será posible. Se tratará el tema. Además en esos día las tiendas de Ilinti estarán ambientadas y han decidido utilizar el logo del Centenario en sus escaparates.

Conferencia en Koldo Mitxelena: De ser el acto oficial en Legazpi no se ve claro lo de la conferencia en el Koldo Mitxelena; de todas formas el conferenciante está dispuesto y ser verá más adelante si se hace o no.

**3. Otros.**

Recuerdos: en la reunión anterior se propuso hacer unas monedas y Bittor Larraza ha traido la propuesta de unas



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

egindako txanpon batena eta prezioen berri eman du, ohi bezala kopurua igotzen den neurrian prezioa jeitsi egiten da. 45 egunetako epea beharko lukete lana egiteko. Aztertu ondoren informazio guztia Pedro Vegari pasatzea erabaki da eta berak esan zuen moduan zerrenda martxan jartzea zenbat jende interesatuta egon litekeen ikusteko, denbora badugu eta.

Bestalde, opari gisa emateko oroigarri proposamena ere aurkeztu da, elizako irudi geometrikoak biltzen dituen arku zati bat, mendeurreneko logoa ere eramango lukeena. Peana moduan eta oinarri soileko formatuetan aurkeztu da, eta azkena da jendeari gehien gustatu zaiona. Aurrekontua brontzean bakarrik daukagu, baina posible da harri artifizialean ere egitea, baina honen aurrekonturik ez dugu. Horren zain geratu gara, baina irudiaren proposamena egokia ikusi da.

Kontzertua: Xabier Barriolarekin hitz egin ondoren, garaiko musika kontzertu formatu desberdinak omen daude, eta horren arabera prezio desberdinak. Aukera desberdinen aurrekontuak bidaltzekotan geratu da eta irailaren amaiera aldera egin daitekeela aipatu da.

Besterik gabe hurrengo bilera apirilaren 14an egitekotan geratu gara.

monedas de plata con el presupuestos. Como es normal cuanto más monedas se hagan más baja el precio. Habría que hacer el pedido 45 días antes. Tras estudiar la propuesta se decide pasar a Pedro Vega para que haga una lista de la gente que podría estar interesada en tener esa moneda. Andamos con tiempo.

Por otro lado se presenta la propuesta del regalo que se puede ofrecer como recuerdo: un trozo del arco que contiene las figuras geométricas de la iglesia de Legazpi con el logo del centenario. Se han presentado dos formatos: a modo de peana y con una sola base. El segundo formato es el que más ha gustado. El presupuesto presentado es realizado en bronce pero también se puede hacer en piedra artificial, pero no tenemos ese presupuesto. Quedamos a la espera de dicho presupuesto pero la propuesta de las figuras se ve adecuada.

Concierto: Después de hablar con Xabier Barriola, comenta que hay formatos diferentes de música de la época con precios diferentes. Mandará distintos presupuestos y se comenta que puede hacerse a finales de septiembre.

Sin más, la siguiente reunión será el 14 de abril.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net